

2015

LARROTXENE KULTUR ETXEA

donostiakultura.com

Larrotxene Kultur Etxea bideo ekoizpenean erreferentea da, hirian, eta atal honetan azpimarratzekoa da bideo langintzaren apartako gorakada.

XXVII. Bideoaldia ospatu zen 2015ean, eta ondo ospatu ere. Larrotxenetik erdialdera Bideoaldia eramateko apustuari jarraipena eman zitzaion 2015ean, eta horrela, Antzoki Zaharrean, Larrotxeneko ikastaroetan egindako hamaika produkzio eta beste hiru koprodukzio ikusteko aukera izan zen.

Bideo ikastaroek oso harrera ona izan zuten. Urtetik urtera, erantzuna hobetuz doa eta emaitza onak lortzen dira eta Larrotxeneko erreferente nagusienetako bat dira.


Bestetik, izan ziren nabarmentzeko hainbat jarduera:

Lagun Artean Kantari, esaterako. Auzotik bertatik sortutako egitasmoa kantu zaleen urteroko elkargune bihurtu da, eta 2015ean Niko Etxart eta Amaia Zubiria luxuzko gonbidatuak izan zituen.

Nabarmentzekoa 2015ean **IV. Intxaurrondo Eguna** ospatu zela. Intxaurrondo oso auzo zabala da eta egitasmo honen helburua, hain hedatuta dagoen auzoaren alde ezberdinak batzea da. Hortaz, goikoak behera jaitea eta alderantziz, behekoak gora joatea. Intxaurrondo Eguna antolatzerakoan ezinbestekoa da auzotarren lankidetzeta eta konplizitate, eta jarduerak izan zuen harrera ona ikusita, aurrera jarraitzeko asmoa sendotu egin da.

Liburutegi atalean, 2015 urtea, Larrotxenen, berrikuntzen urtea izan zen. Liburutegiko argiteria zein erabilpen publikoko ordenagailuak berritu ziren eta horrela, liburutegiko zerbitzuak hobetzeko ibilbideari ekin zitzaion, beti ere, Intxaurrondo Zaharreko auzotarrak kontutan hartuta. 2015ean ere, bisitari kopuruari eutsi zitzaion eta maileguen zerbitzua indartu eta hobetu egin zen.

Bestetik, haurrentzako liburuen gaineko ekitaldi bereziak antolatu ziren, auzoko hainbat eskolako ikasleekin lan eginez, eta oso emaitza ona lortu zen.



Bideoaldia



Niko Etxart, Lagunekin kantari

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	106	3.493
Antzerkia	8	702
Bideoa eta Zinea	1	583
Musika	6	583
Hitzaldiak	1	5
Erakusketak	2	501
Elkarteen bilerak eta jarduerak	39	624
Liburutegiko jarduerak	48	1.165
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	336	159.145
Liburutegiko bisitariak		14.833
BIDEO TAILERRA		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	15	192
Prestamoak	63	66
Alokairuak	15	192

PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
TOTAL	15	172	7	99	8	73
2014/2015 ikastaroak	6	32	3	15	3	17
2015/2016 ikastaroak	9	140	4	84	5	56

PRESTAKUNTZA GIZONAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
TOTAL	15	88	7	36	8	32
2014/2015 ikastaroak	6	42	3	16	3	26
2015/2016 ikastaroak	9	46	4	20	5	26

Bisitariak GUZTIRA: **35.097**